



2008ko APIRILAREN 21eko LANGILERIAREN KUDEAKETARAKO ZUZENDARIAREN EBAZPENA. HONEN BIDEZ, ZUZENDARI BERAREN 2008ko OTSAILAREN 27ko EBAZPENA ALDATZEN DA (EBAZPEN HAREN BIDEZ, 2007/2008 IKASTURTEAN HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZAN ORDEZKAPENAK EGITEKO 2008ko URTARRILAREN 6ko DEIALDIAREN BIDEZ IREKI ZIREN IZANGAIEN ZERRENDETAN ONARTUTAKOEN ETA KANPOAN UTZITAKOEN BEHIN BETIKO ZERRENDA ARGITARA EMAN ZUEN)

2008ko urtarrilaren 6an ireki ziren Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Bigarren Hezkuntzako, Lanbide Heziketako, Hizkuntzen Irakaskuntzetako eta Musika Irakaskuntzetako ikastetxe publikoetan zenbait espezialitatetan ordezkapenak egiteko izangaien zerrendak eta 2008ko urtarrilaren 7tik 11ra (biak barne) bitarteko epea eman zen eskaerak aurkezteko; horren kalterik gabe, zerrenda horiek, besterik esan arte, irekita jarraitzen dute eta eskaera berriak onartzen dira, sarrera-ordenaren arabera.

2008ko urtarrilaren 7tik 11ra bitarteko epean aurkeztu ziren eskaerak ikusita, Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenen bidez argitara eman ziren izangaien zerrenda horietan onartutakoen eta kanpoan utzitako behin-behineko eta behin-betiko zerrendak.

2007ko abenduaren 11ko ebazpenak aldatzen duen 2004-05-26ko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpenak 5. artikulua laugarren atalean ezarritako baldintzen arabera ireki ziren zerrendak eta izangaiak alfabetikoki ordenatu ziren, letra erabakitze urtero egiten den zozketaren emaitzen arabera. 2007/2008 ikasturterako "A" letra izan zen.

Aipatutako zerrendak, "A" letraren arabera ordenatuak, 2007/2008 ikasturtean gertatzen diren ordezkapen guztietan erabiliko dira.

Aurkeztutako helegiteak berrikusi ondoren, eta Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak emandako erredakzioan, 105.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, "*administrazio-publikoek, halaber, edozein unetan zuzendu ahal izango dituzte, ofizioz edo interesatuen eskariz, beren egintzetan dauden akats materialak, egitatezkoak edo aritmetikoak*".

Aipatutako legeria eta bat datorren gainontzekoa ikusi ondoren,

EBATZI DUT

Lehena.- 2008ko otsailaren 27ko Langileriaren Kudeaketarako zuzendariaren ebazpena ondorengo terminoetan aldatzea. Izan ere, ebazpen horren bidez argitara eman ziren 2007/2008 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzan ordezkapenak egiteko 2008ko urtarrilaren 6ko deialdiaren bidez irekitako izangaien zerrendetan onartutakoen eta kanpoan utzitako behin-betiko zerrendak.



-- Mikel Joseba Sierra Ortiz de Urbina jaunaren datu pertsonalak zuzentzea, akats batengatik Cierra abizenarekin agertzen zen, eta zerrendan dagokion alfabeto-ordenaren arabera jartzea.

-- Ondorengo pertsonen 2. hizkuntza eskakizuna egiaztatutzat jotzea eta izangai gisa zerrendan sartuta edukitzea, erlazionatzen diren maila, irakasgai eta lurralde historikoetan, eta dagokion alfabeto-ordenaren arabera jartzea:

1.- Marisa Arce Fernandez andrea, Bizkaiko lurralde historikoan eta haur hezkuntza (16-0951) irakasgaietan.

2.- Laura del Castaño Villalba andrea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, lehen hezkuntza (16-0951), kontsultorea (16-0953) eta hezkuntza berezia, pedagogia terapeutikoa (16-0958) irakasgaietan.

3.- M^a Isabel Perez Cadiñanos andrea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, lehen hezkuntza (16-0951) eta hezkuntza berezia, pedagogia terapeutikoa (16-0958) irakasgaietan.

-- Ondorengo pertsonak izangai gisa zerrendan sartuta edukitzea, erlazionatzen diren maila, irakasgai eta lurralde historikoetan, eta dagokion alfabeto-ordenaren arabera jartzea:

1.- Jaione Aguinaga Udi andrea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, haur hezkuntza (16-0950) irakasgaietan. 2. hizkuntza eskakizuna.

2.- Iratxe Antxustegui Urionabarrenetxea andrea, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, hezkuntza berezia, entzumena eta hizkuntza (16-0959) irakasgaietan. 2. hizkuntza eskakizuna.

3.- Arantzazu Madrazo Lizaso andrea, Gipuzkoako lurralde historikoan igelesa (16-0954) irakasgaietan. 2. hizkuntza eskakizuna.

4.- Beñat Mendizábal Escudero jauna, Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, lehen hezkuntza (16-0951), gorputz-hezkuntza (16-0956) eta euskara eta literatura (16-0963) irakasgaietan. 2. hizkuntza eskakizuna.

5.- M^a Esther Tome Larrazabal andrea, Bizkaiko lurralde historikoan, lehen hezkuntza (16-0951) eta euskara eta literatura (16-0963) irakasgaietan. 2. hizkuntza eskakizuna.

6.- Maria Vidal Sanchez andrea, Bizkaiko lurralde historikoan, haur hezkuntza (16-0950) irakasgaietan. 2. hizkuntza eskakizuna.

7.- Aiala Bizkarguenaga Gumuzio andrea, Bizkaia eta Gipuzkoako lurralde historikoetan, hezkuntza berezia, pedagogia terapeutikoa (16-0958) irakasgaietan. 2. hizkuntza eskakizuna.

Bigarrena.- Interesatuak gorako helegitea aurkeztu ahal izango dute administrazio-bideari amaiera ematen ez dion ebazpen honen kontra, hilabeteko epean, ebazpena hau argitara eman eta hurrengo egunetik kontaktzen hasita.

En Vitoria-Gasteiz, a 21 de abril de 2008/2008ko apirilaren 21a



**DIRECTORA DE GESTIÓN DE PERSONAL/LANGILERIAREN
KUDEAKETARAKO ZUZENDARIA**

ITZIAR GARAIZAR AGIRRE